

“Zatozte nereganat, nekatuak eta zamapean zirezten guziak, eta nik atsedena emanen dautzuet.” (Mt 11, 28).

Holako zerbait entzun zuken Inaki sainduak 1521-ean, 30 urte zituela gure soldado atrebituak kanoi bola batek azkarki kolpatua baitzuen. Loiola-rat ereman zuten... Luzaz egon behar ohean geldi-geldia... odol berokoa zen... oseba batek errana zakon : “Inigo, zango bat hausten ez duzuno, ez duzu zentzu miko bat bilduko”... Denbora nolazpait iragaiteko, liburu zonbait galdatzen ditu... Gerlaz eta amodio ixtorioetaz hetarik nahiko zuken bainan Loiolan ez dute Kausitzen Jesu Kristoren biziaz besterik... Irakur arau gustu hartzen du eta errotik itzultzen. Izan zen uste gabeko bihurtuna. Guk ere, Inaki bezala idek bagineza Ebanjelioa : « Zatozte nere ganat... ikas nere ganik ezta eta bihotz apala bainaiz ». Jainko urrikaltsuaren jubilauro urte huntan on da entzutea gaurko Ebanjelioak diona : “Ikas nere ganik ezta eta bihotz apala bainaiz”... Egia da badugula beti ikasteko ! Beila huntaz balia gintazke Jesusen baitan ezartzen dugun fedea arraberritzeko... « Ezta eta bihotz apala » eta ez nausi bortitz baten pare, beti barrandan dagona gu hutsean atxeman nahiz... « Ezta eta bihotz apala » : hori ahanzten badugu, ahultzen eta murixten dugu Jainkoaren Hitza. Erlisionearen erroak Jainko urrikaltsuaren baitan oinharituak dira, edo bederen hola izan behar litezke ! Aitor dezagun, lehengo denboretan, ez direla beti bide hortarik ibili eta orai ere aski lan badugula eliza ideki baten itxura lantzeko eta agertzeko ! Ikasi ondoan Jainkoak maite gaituela , guri da obratzea ! eta ez elez bakarrik !

Duela zonbait aste, lagun bat ikusi dut... erraiten daut : eliza batean egin zuela itzuliño bat egin zuela eta ikusi izki haundietan emana « Urrikaltsu Aita bezala... » erraiten daut gustukoa zuela erran hori eta... xixtako ondotik, « hola balire kristauak ! » Arrazoin duzu... badugu denek konbertitzeko beharra apezetarik haste !

Horiek hola, Jainko urrikaltsu urte saindu huntan, eta ondoko urtetan erran gabe doa, girixtinoak deituak girela Jesusek berak erakutsi bideak hartzerat : eman ez « Gose nintzan eman dautazue jaterat ». Eskerrak Jauna, ainitz herrietan behartsuetaz arta hartzen dutenentzat. Hurbil izanez « eri, eta zuek ene ikusten izan ». Eskerrak Jauna eri artatzaile eta bisitatzailentzat ezen erremedioak bezain beharrezkoa baita inguruko amodioa. Zubiak eginez “Arrotz, eta etxean hartu nauzue. Eskerrak Jauna, ongi etorria egina baitzaie beren herritik ihes jinika-koeri ! Haurridetasunez “preso eta ikusterat izan”. Eskerrak Jauna, jendetasunez, adixkidantzaz presoak ez ahanzteko egiten diren urrats guzietaz ! « Zure anaiari egiten duzuna, eni egiten dautazu » dio Jauna ! Badugu nun zer ikas eta nun ikus !

Maurice Arhets apeza.